REVISTA DE MEDIO AMBIENTE

BIZKAIA MAITEA

nº 3/98



DIVERSIDAD ECOLÓGICA, DIVERSIDAD CULTURAL

EUSKADIKO LEHEN PARKE ORNITOLOGIKOA, BIASTERIN

HUMEDALES, ENCLAVES DE ALTO VALOR ECOLÓGICO

EGURRAREN ZORTEA UBIDEN

CREADA LA PRIMERA AULA PEDAGÓGICA DE CICLISMO EN DERIO

HAURRENTZAKO KOADERNOA

urria 98 OCTUBRE

ARGITARATZAILEA/EDITA
Bizkaiko Foru Aldundia/
/Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

Diputación Foral de Bizkaia/ Departamento de Medio Ambiente y Acción Territorial

Bizkaia Maitea. Alda. de Recalde, 30
48009 Bilbao. Tel. 420 77 00
Aptdo. de Correos 53. Bilbao

ARGITARATZAILE ORDEZKOA/ /EDITOR DELEGADO
U.T.E. Iniciativas Ambientales y RALI, S.A.

ZUZENDARITZA ETA ERREALIZAZIOA/ /DIRECCIÓN Y REALIZACIÓN
Iniciativas Ambientales

ERREDAKZIO-BURUAK/ /REDACTORES JEFE
Juan Carlos Barrios / Eva Benito

DISEINUA ETA MAKETAZIOA/ /DISEÑO Y MAQUETACIÓN
Paloma Seoane Cifre

ILUSTRAZIOAK/ILUSTRACIONES
Juan Sánchez

ARGAZKIAK /FOTOGRAFÍAS
I.A - A. Estefanía - WATU/Acción Indígena - Jon Urutxurtu - INBio - Fundación Ciclista Euskadi - Gobierno Vasco - Ayuntamiento de Getxo

EUSKARAZKO AHOLKULARIA / /ASESORÍA DE EUSKERA
Jose Morales

FOTOMEKANIKA /FOTOMECÁNICA
Tratex, S.L.

INPRIMATEGIA /IMPRENTA
RALI, S.A.

Lege-gordailua /Depósito legal: BI-733-96

I.S.S.N.: 1136-4246

Aldizkarian azaldutako iritziak artikuluen egileenak dira, eta ez dituzte halabeharrez editorearen ideiak adierazten.

Las opiniones expuestas en la revista, son de los autores de los artículos y no expresan forzosamente las ideas de quien la edita.

PAPER EKOLOGIKOA/PAPEL ECOLÓGICO

LABURPENA

4
DIVERSIDAD ECOLÓGICA, DIVERSIDAD CULTURAL

8

EUSKADIKO LEHEN PARKE ORNITOLOGIKOA, BIASTERIN

10

EL DERECHO AL MEDIO AMBIENTE

12
EGURRAREN ZORTEA UBIDEN

15

HAURRENTZAKO KOADERNOA

23

DIBERTSITATE BIOLOGIKOARI BURUZKO HITZARMENA: GARAPEN EUTSIGARRIRAKO TRESNA

26
CREADA LA PRIMERA AULA PEDAGÓGICA DE CICLISMO EN DERIO

28
HUMEDALES, ENCLAVES DE ALTO VALOR ECOLÓGICO

31
NOTICIAS BREVES E INTERESANTES

32
BRICOLAJE ECOLÓGICO
Conductores ecológicos

34
PARTICIPA

SUMARIO

Atsegin handiz zuzentzen natzaizue BIZKAIA MAITEA Klubeko kideoi, zuekin etorkizun handiko albiste pozgarri baten berri emateko. Dudarik gabe hondakinen bilketa selektiboan eragin positiboa izango duen berria da: ontzien birziklapenerako "hirugarren edukiontzia" deiturikoa ezarriko da. Une honetatik urte amaiera arte, lehenengo faseak irauten duen bitartean, "kolore horiko" hirugarren edukiontzia ezaguna egingo da gure kaleetan.

Etorkizuna pozgarria da gure Lurra maite dugunontzat. Hemendik aurrera, tetrabrika, plastikoak, latak... ez dute zaborrontzian amaituko, birziklapen katearen parte izango dira.

Bizkaian ontzien birziklapenerako zirkuituak martxan jartzen dituzunean (edukiontzien instalazioa, bilketa eta garraio sistema, eta ondorengo tratamendurako banatze eta sailkatzeko planta), Europa mailako birziklapenean lehenengoen artean izateko oinarriak jarriko ditugu. Eta garrantzitsuena, Bizkaiko hiritarren pentsakera eta ohituren aldaketan urrats esanguratsua emango dugu.

Etorkizuna berde kolorez idazten da, baina denon artean idazten dugu egunez egun.

eskutitza

Me satisface poder dirigirme a todas las socias y socios del Club BIZKAIA MAITEA para compartir juntos una agradable y prometedora noticia que influirá muy positivamente, sin duda, en la recogida selectiva de nuestros residuos: la instalación del llamado "tercer contenedor" para la valorización de los envases. Desde este momento y hasta finales de año, en que finalizará la primera fase de su instalación, la presencia de este tercer contenedor, fácilmente identificable por su color amarillo, empezará a ser familiar entre el mobiliario urbano de nuestras calles.

El panorama se nos presenta alentador para quienes amamos nuestra Tierra. A partir de este momento, envases como el tetrabrik, los plásticos, las latas... no irán a parar al cubo de la basura, pasarán a formar parte de la cadena de reciclaje.

Una vez que pongamos en marcha en Bizkaia los nuevos circuitos de valorización de envases (instalación de contenedores, sistema de recogida y transporte, planta de separación y clasificación para su posterior tratamiento), habremos puesto los cimientos para situarnos en la primera línea del reciclaje a nivel europeo. Y lo que es más importante, habremos dado un paso de gigante en el cambio de mentalidad y de hábitos de la población de Bizkaia.

El futuro se escribe en verde, pero la letra la escribimos día a día entre todas y todos.

carta

Mª Esther Solabarrieta Aznar
Ingurugiro eta Lurralde Ekintzako foru diputatua
Diputada Foral de Medio Ambiente y Acción Territorial

Diversidad

Los occidentales buscamos la creación en la imaginación, en la fantasía, en el artificio, cuando precisamente esa propia creación parece reposar en una comprensión serena y lúcida de la realidad, en una digestión plácida de la misma y en la lucha decidida por cambiarla desde una postura íntima, nada exhibicionista.

Gonzalo Delacámara(*)

A menudo nos enfrentamos al concepto de biodiversidad desde un gesto de soberbia intelectual, asumiendo una comprensión generalizada de una idea compleja por definición. Intuitivamente tendemos a asimilar la diversidad biológica con la variedad de especies, la diversidad genética o la riqueza de ecosistemas. En cada una de nuestras decisiones sociales revelamos el peso que damos a la conservación del medio en general y la diversidad biológica en particular en nuestro bienestar. Emprendemos estrategias de conservación que a menudo identifican la biodiversidad con el mantenimiento de pequeños 'oasis' de gran diversidad biológica en medio de un desierto de hábitats cada vez más empobrecidos. Nuestra mirada miope y la dificultad de interpretar el medio natural desde una perspectiva ecosistémica nos llevan en ocasiones a una cierta actitud de complacencia con el

biológica, diversidad cultural

mantenimiento de patrimonios naturales en bancos de germoplasma (santuarios) y a la asimilación del concepto de biodiversidad a la protección de especies más o menos exóticas o extravagantes (que muchos de nosotros nunca hemos visto y probablemente nunca veremos) en base a principios morales y, por definición, altamente discutibles.



Defensa de la biodiversidad

Desde nuestra labor de defensa de los derechos de los pueblos indígenas del planeta hemos llegado al convencimiento precario de que no puede interpretarse la defensa de la biodiversidad como una quimera intelectual, ni como una reivindicación absurda de los derechos de los camaleones de Madagascar frente a los de los habitantes de la isla que los contemplan. La demagogia y el fundamentalismo (que no la ideología), dada su incompatibilidad manifiesta con el sentido común, debieran ser abandonados en favor de posiciones de consenso que aboguen por la defensa de la biosfera como un todo sin necesidad de trazar una frontera burda entre el ser humano y el medio natural.

El 7% de la superficie terrestre del planeta, siempre en tierras habitadas por comunidades indígenas (en selvas húmedas, desiertos, tundra, etc...), contiene el 70% de la diversidad biológica de flora y fauna que todavía existe. han mantenido durante siglos sistemas de vida basados en la frugalidad y en la satisfacción de necesidades y aspiraciones de todos sus miembros. Durante toda su historia han contribuido decisivamente a la conservación de la diversidad biológica de aquellos territorios que ocupaban ajenos al avance de ese desarrollo occidental basado en la falacia de que puede crecerse indefinidamente en un mundo finito (enorme pero finito a fin de cuentas).



Estos pueblos han asistido primero a la expoliación de sus tierras, a modelos desarrollistas de gestión de los recursos naturales cimentados en prácticas manifiestamente insostenibles, han visto cómo se les despojaba en ocasiones de su conocimiento de la naturaleza, y actualmente, se han visto obligados a organizarse para la defensa de los derechos sobre sus territorios y sobre la propiedad intelectual de toda la riqueza genética que conservan para hacer frente a las prácticas de piratería de las multinacionales farmacéuticas.

Es evidente que la indiferencia cómplice de una comunidad internacional que interpreta la actualidad del mundo con la frialdad de un forense contribuye en gran medida a la pérdida lacerante de ecosistemas y al empobrecimiento del planeta en términos de diversidad biológica y cultural. Las organizaciones internacionales que tienen la competencia de desarrollar el marco legislativo necesario para evitar éstas y otras situaciones injustas no se sienten particularmente presionadas para profundizar en políticas de conservación del medio.

WATU/ACCIÓN INDÍGENA

Nuestra labor como Organización No Gubernamental (ONG) es, en este sentido, fuente de impotencia y desengaño, de ansiedad por querer abarcar un infinito, de tristeza al desear que nuestro esfuerzo trascienda entre las miserias de casi trescientos millones de indígenas. En WATU/ACCIÓN INDÍGENA, desde nuestra convicción de la necesidad de cooperar con los pueblos indígenas de todo el planeta, de apoyar sus luchas legítimas y sinceras, de defender su voluntad de recuperación de su historia e identidad y sus derechos sobre los territorios que habitan desde hace siglos, de secundar sus reivindicaciones por el control de sus recursos tradicionales y respaldar la protección de sus derechos intelectuales y culturales; tratamos de conciliar una postura de denuncia con otra actitud más pragmática (y paradójicamente no menos idealista) centrada en la interpretación de la legislación internacional en sentido positivo. No cabe duda de que esta legislación es claramente insuficiente pero desde WATU hemos decidido enfocar nuestros esfuerzos en la

identificación de aquellos acuerdos internacionales que permitan emprender una defensa decidida de los derechos de los indígenas.

CDB

El Convenio de Diversidad Biológica (CDB) surgió como uno de los instrumentos emanados de la Cumbre de la Tierra (Río de Janeiro, 1992). El Convenio es un intento de compatibilizar la gestión de los recursos naturales del planeta con las distintas actividades humanas en base a las ideas de conservación, uso sostenible del medio y reparto equitativo de los beneficios obtenidos de la biodiversidad. El artículo 8.j de dicho Convenio reconoce el papel desempeñado por los pueblos indígenas en la conservación de la diversidad biológica y llama a las partes contratantes a respetar, preservar y mantener sus conocimientos, innovaciones y prácticas, promover una aplicación más amplia de todos ellos, y fomentar un reparto equitativo de los beneficios derivados de su utilización. Este Convenio es anualmente supervisado y discutido en la denominada Conferencia de las Partes (COP), cuyas tres primeras reuniones se celebraron en Nassau (Bahamas), en 1994, Jakarta (Indonesia), en 1995 y Buenos Aires (Argentina), en 1996. Este año (4-15 de mayo) ha tenido lugar la cuarta de esas reuniones en la ciudad de Bratislava (Eslovaquia). En ella se han visto reflejados los resultados de los últimos cinco años en una agenda de trabajo extensa, cuyo propósito es la revisión de la operatividad del Convenio.

BIOPIRATERÍA

Otro fenómeno, conocido como biopiratería, ha irrumpido en el debate sobre los derechos de los pueblos indígenas. En los últimos años han proliferado las denuncias contra los países industrializados por su expoliación sistemática de las comunidades indígenas y la apropiación de sus conocimientos tradicionales en biología, agricultura, ganadería o farmacopea sin hacer frente a ningún tipo de compensaciones en concepto de derechos. Ese acerbo de conocimiento está siendo utilizado comercialmente por los grandes laboratorios farmacéuticos cuyos ingentes beneficios no retornan a los pueblos indígenas.



Los nuevos sistemas internacionales de patentes, las normas de la Organización Mundial de la Propiedad Intelectual (OMPI), el convenio TRIPs en el seno del GATT, la negociación de la Ronda Uruguay y la Organización Mundial del Comercio (OMC) únicamente han contribuido a crear complejos sistemas legales sesgados en contra de los pueblos indígenas.

En WATU/ACCIÓN INDÍGENA somos conscientes del error que supone interpretar realidades ajenas con esquemas propios. Preferimos ser la plataforma desde la que los propios indígenas (crecientemente organizados) ejerzan una defensa vehemente de sus derechos. Intentemos entender que la pérdida de diversidad siempre implica pobreza.

(*) Director de WATU/ACCIÓN INDÍGENA

EUSKADIKO LEHEN PARKE ORNITOLOGIKOA

Kantabriar Mendikatearen oinean, Araban, Biasteriko udal-barrutian hain zuzen ere, Euskadiko lehen parke ornitologikoa dago: Los Molinos. Ingurune natural paregabe batean dago eta 130 hegazti-espezie baino gehiagoren eta zenbait ugaztunen babesleku da.

Alberto Estefanía

Parkeak 24.000 m² ditu eta erdia baino gehiago bisitatu ahal da. Joan den martxoan parkeak lehen urtea bete zuen. Herritarrentzat zabalik egon den lehen urte horretan, hogei mila inguru bisitari izan ditu. Parkean askotariko hegaztiak daude, hona hemen aipagarrienak: tukan zaratatsua, guakamaio koloretsua, ostruka, ñandua eta emu australiarra (ostrukaren familiakoak biak), kalao gandorbeltz bitxia, kurrilo koroadun iheskorra, muduko eperrik handiena (Himalaiakoa), lori ortzadar ikusgarria, pelikano handia, hamalau faisai-espezie, hogeita hamar anatido-espezie, zangoluzeak, harrapariak, etab.

TUKANA

Oraindik ez dakigu zergatik daukan hain moko itzela. Teoria batzuen erabera, jaten dituen fruituetara errazago iristeko erabiltzen du. Beste teoria batzuen arabera, aldiz, ezaugarri bereizgarria da eta beste ar batzuk izutzeko balio du. Tukanak zuhaitzetako zulo txikietan egiten du habia, eta zulotxo horiek ditu aterpe. Lo egiteko, mokoa bizkarraren gainean ipini, isatsa gorantz tolestu (mokoa estaltzeko) eta hegoak harrotzen ditu; horregatik, lo dagoenean, lumazko bola bat ematen du.

GUAKAMAIOA

Guakamaioaren lau subespezieen kolore ikusgarriek desagertzeko zorian jarri dute ara-mota hau. Legez kanpoko ehiztariek Hegoamerikako hegazti hauek harrapatzen dituzte, gero izugarri garesti saltzeko herri aberastuetan. Txitoak biluz-biluzik jaiotzen dira. Jaio eta 35 egunera agertzen dira lehen lumak. Argazkian guakamaio urdina ikus dezakegu.

OSTRUKA

Ostruka hegazti superlatiboa da: bera da hegazti guztietan handiena (ale batzuek 2,5 m-ko garaiera eta 150 kg-ko pisua izan ditzakete), berak erruten ditu arrautzarik handienak, beraren hankak beste edozein hegaztirenak baino luzeagoak eta indartsuagoak dira eta, haiei esker, bera dugu korrikalari hegodunik lasterrena (70 km/h

egin dezake), eta, azkenik, berak ditu begirik handienak (elefantearenak baino handiagoak). Zelai zabaletan bizi da eta, begi handi horiei eta lepo luze-luzeari esker, urrundik begiztatzen du arriskua.

PAUMA

Faisai handi honek araldian emeei erakusten dien luma-sorta ederra animalien erreinuko ikusgarrienetakoa da. Indian orain dela hogei mende hasi ziren pauma urdina etxe-

kotzen (pauma-mota hori da ezagunena eta zabalduena). Gaur egun, gure inguruko parke batzuetan aurki dezakegu. Badago etxe-arraza bat ere, zuri-zuria, baina ez dago pauma basatia bezain hedaturik.

PELIKANOA

Oso arrantzale trebea da. Mokoaz harrapatzen ditu arrainak: izugarri handia da eta sare gisa erabiltzen duen mintz-poltsa zabala dauka. Pelikanoak irentsi egiten du arrantzatzen duen guztia, eta papoan eramaten du habiaraino. Habiara iritsitakoan, txitoak mokoa eta burua sartzen ditu gurasoen eztarrian, janari bila. Orduan, gurasoek arraina goitikatzen dute, kumea elikatzeko.

BIASTERIKO AINTZIRAK

Biotopo babestu hori Arabako Errioxaren erdian dago. Biasteritik ikusirik, hiru inguru hezez osaturik dago. Haietako bi (Carralogroño eta Carravalseca) denboraldiko aintzira endorreikoak dira, jatorri eta funtzionamendu naturalekoak. Hirugarrena (Prado de la Paul), berriz, antzinako inguru lokaztu batean eginiko urtegia da.

Flora eta faunako espezie ederrak ikus daitezke hiru aintziretan, denak euren kasa bizi direla. Hegaztiek osatzen dute multzorik ikusgarriena; basahatea, kopetazuri arrunta eta murgil handia dira haietako batzuk. Hegazti horiek guztiak euren ingurune naturalean ikusteko, kontuan izan behar dituzu aholku hauek: isilik egon, ez bota zaramarik, ez irten bidetik (landareei kalterik ez egiteko), prismatikoak edo teleskopioa erabili, batik bat irailetik martxora bitartean bisitatu eta, azkenik, bizikletaz edo oinez joan.

Una propuesta para el reconocimiento de un nuevo derecho

EL DERECHO AL MEDIO AMBIENTE

A continuación os reproducimos el documento de síntesis de la Declaracion Institucional de la Diputacion Foral de Bizkaia ante el Dia Mundial del Medio Ambiente

- El próximo 10 de diciembre de 1998 se cumplen 50 años desde que la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobara la Declaración Universal de los Derechos Humanos.

- La defensa de la existencia de un derecho humano a disponer de un medio ambiente adecuado para el desarrollo de la personalidad es hoy una de las expresiones necesarias de una lectura actual del respeto a la dignidad de las personas y, en definitiva, de la Declaración Universal. Por ello, se hace necesaria una actualización de los Derechos Humanos.

- No pueden negarse relativos avances en la política medioambiental producidos a nivel internacional en las últimas décadas, pero lo cierto es que la realidad actual nos presenta una situación altamente preocupante de degradación ambiental que requiere respuestas urgentes y globales. Los seres humanos se han convertido en el principal agente de deterioro ambiental y, al mismo tiempo, en las principales víctimas de dicho problema. Por ello, se hace necesaria la proclamación y asunción por todos de la existencia de un derecho humano al medio ambiente.

- El derecho humano al medio ambiente descansa sobre el fundamento insoslayable del respeto a la dignidad inherente a la persona humana, pero también sobre la necesidad de asegurar la propia pervivencia de la Humanidad. El derecho al medio ambiente es, por tanto, un factor nuevo de lo que debemos entender hoy como la cultura de los derechos humanos. Una cultura que debe considerar a todos los derechos como un conjunto indivisible e interdependiente, sin jerarquías preestablecidas.

- El medio natural es un factor decisivo en el desarrollo de una cultura y un elemento necesario para su pervivencia.

- Es fundamental subrayar la estrecha relación que se establece entre la efectividad del derecho al medio ambiente y el derecho de los individuos y de los pueblos al desarrollo. El respeto al medio ambiente no es sino un componente ineludible de un concepto amplio de desa

J.A. Gascón

rrollo humano y sostenible y, en definitiva, de paz.

- Los intereses salvaguardados por el derecho a disfrutar de un entorno natural adecuado trascienden, compredi éndolo, el ámbito individual de las personas físicas, para pertenecer al grupo de los llamados intereses colectivos o intereses difusos. Este hecho realza la necesidad de una política ambiental participada. Son titulares del derecho humano al medio ambiente los individuos, los pueblos y, en última instancia, la propia Humanidad. Es, por tanto, un derecho de las personas y de la comunidad. Del mismo modo, la efectividad de este derecho humano debe asegurar la protección de un medio natural adecuado para las generaciones futuras.



J. Bilbao

- La naturaleza de los intereses ambientales en juego exige que la protección de los mismos y la efectividad de este derecho se articulen mayoritariamente a través de la prevención, frente al escaso valor que en este ámbito puede revestir la reparación. El desarrollo de una política global de prevención para asegurar la efectividad del derecho humano al medio ambiente exige así mismo del instrumento de la participación. Resulta igualmente esencial la labor educativa y sensibilizadora para con la sociedad en general y, especialmente, con sus sectores más jóvenes.

J.P. Fernández

- En suma, se trata de impulsar el surgimiento de una nueva ética internacional que asuma, entre otros aspectos, una ética de la Naturaleza. A través de este fomento de la solidaridad debe articularse una ética de acción, en la que los ciudadanos deben sentirse interesados y movilizados.

E. Alonso

La adhesión de los individuos a este nuevo código ético ambiental puede y debe ser alentada, estimulada y promovida tanto por las instituciones públicas como por los movimientos sociales y populares.

• La Diputación Foral de Bizkaia, consciente de su responsabilidad, asume públicamente las principales orientaciones de las convenciones internacionales y, de un modo específico, los principios y directrices marcados en la Agenda 21 aprobada en Río de Janeiro en junio de 1992 con ocasión de la Cumbre de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo. De este modo, refuerza el impulso que viene prestando a la labor formativa y de sensibilización a través, principalmente, del sistema educativo y de sus programas de información.

• De igual forma, la Diputación Foral de Bizkaia, en el marco del Día Mundial del Medio Ambiente, quiere recordar a todos los ciudadanos/as del planeta, a los grupos sociales de todo tipo y a las instituciones públicas, la necesidad de impulsar entre todos una nueva ética activa de la naturaleza que asegure a las personas y a los pueblos su libre y armónico desarrollo.

• En particular, la Diputación Foral de Bizkaia hace un llamamiento a los Estados de la comunidad internacional, estructurados en organizaciones internacionales, particularmente las Naciones Unidas, para impulsar decididamente la definición positiva de un derecho humano y de los pueblos al medio ambiente que garantice la aceptación del mismo a escala universal.

Diputación Foral
de Bizkaia

EGURRAREN "ZORTEA" UBIDEN

Basoaren ustiapen tradizionala Gorbeialdean

Gizarte tradizionalean lehen mailako funtzioa betetzen zuen basoak. Bertatik eskuratzen zen, beste gauza batzuen artean, eraikuntzarako zein ikatza egiteko beharrezko zen egurra. Basoak jokatu duen paper garrantzitsu horren adierazle da Ubiden (Bizkaia) mendeetan zehar burutu den eta oraindik bizirik dirauen "egurraren zortea".

Ubide, Gorbeiapean kokaturik dagoen herria.

Jon Urutxurtu (IPIZKI Taldea)

Basoak gaur egun ere garrantzi handia du Euskal Herriko hainbat herriren bizitzan, baina batez ere gizarte tradizionalean, lur ekonomian oinarrituta-koan, lehen mailako funtzioa betetzen zuen. Gizakiaren zein ganaduaren elikadurarako iturri emankorra zen, gaztaina, ezkurra eta ehiza bertan aurki zitezkeelarik. Ganaduaren azpietarako beharrezkoa zen ira eta orbela ere basoan eskuratzen ziren.

Bestalde, basoetako egurra funtsezkoa zen etxebizitzak eraikitzeko edota konpontzeko, untzigintzarako, errementak egiteko eta baserrietako behe-sua iziotzeko. Bertatik lortzen zen garai batean Gorbeialdean, eta bereziki Ubiden (Bizkaia), hain ugariak ziren burdinola eta errementariek beharrezko zuten ikatz bihurturiko egurra ere.

Basoak jokatu duen paper garrantzitsu horren adierazle da Ubiden mendeetan zehar burutzen

den egurraren suertea edo, ubidarrek esaten duten bezala, egurraren "zortea" edo "zortie".

Loteen prestaketa

Ubide, 1997ko abenduaren 27a, larunbata. Goizeko bederatziak. Eniabe mendiaren magalean dagoen Eskortaleku izeneko pagadira hiru gizon iristen dira. "Zortea" burutzeko lehenengo betebeharra egitera datoz: loteen eraketa edo "zorteak egitea". Lan hori Udalari dagokio. Aurtengoan, Anton Beobide alkatea eta Martin Mendizabal zinegotzia izango dira arduradunak, Eugenio Ibargutxi "Baltza" hirurogeita hamar urteko ikazkin ohiaren aholkupean. "Orain dela hogeita hamar urte toki berberetik eroan genuen "zortea". Inausten nenbilela zauri bat egin nuen atzamarrean. Pago horretan izan zen" gogoratzen du Eugeniok bere makilaz zuhaitza seinalatuz. Hogeita hamar urte behar izan dira pago haiek euren fruitua berriro emateko.

Kontuak kontu, lanari heldu behar eta pagadira begirada zorrotza luzatu ondoren, nondik hasi erabakitzen du hirukoteko beteranoak. Familia bakoitzak hurrengo neguan etxea berotzeko beste egur bildu behar da lote bakoitzean. Lanak kontzentrazioa eskatzen du, loteak ahal denik eta bardintsuen izan daitezen. "Zotz batek baino egur gutxiago duten zuhaitzek, adartsuak direnekin orekatuz, bi edo hiru traktorkadaz osatu behar da lotea" dio Eugenio "Baltzak".

Pagoren bat usteldurik badago, barrenetik moztua izango da, eta osasuntsu eta adartsua bada, inausia. Eginbeharra betetzeko tresnak, pintura eta aizkora dira; pinturaz, lote bat osatzen duten pagoei zenbaki berdina idazten zaie enborrean eta osorik bota behar denari, zenbakiaz gain, aizkoraz koska bat egiten zaio oinarrian.

Lote bat osatzen duten zuhaitzei zenbaki berdina jartzen zaie.

Bota behar den zuhaitzari, zenbakiaz gain, koska bat egiten zaio oinarrian.

Ordu bete jardun ondoren, bost lote osatzea lortu dute, eta bederatzi eratu behar. Martinek dioenez, "orain dela urte bi hogeita bost eskakizun eduki genituen; iaz hamazazpi eta aurten bederatzi, jendea gasoilezko berogailuak jartzen ari da eta eskaera gutxituz doa."

Basoak eskatzen duena

Falta diren lau loteak beste herriko baso batean egingo dituzte, Abeletxegane hariztian. “Eskatzen duena eman behar zaio basoari; arboladi hau gaztea da, berez ernetako haritzak dira, eta zuhaitzik onenak era egokian hazi daitezen hariztia mehaztu egin behar da” adierazten du Eugenio “Baltzak”. Beraz, zenbakia marrazten zaien zuhaitzak barrenetik botako dira.

Falta ziren lau loteak eratu ondoren, bere betebeharra amaitutzat emoten du hirukoteak. Orain, Udalak hiru asteko epea utziko du herritarrek loteak ikus ditzaten.

Zozketa eguna Udaletxean.

Zozketa

Urtarrilak 18, igandea. Hamabietako meza ostean, "zorteetarako" izena eman zutenak udaletxera doaz. Zozketa eguna da.

Udaleko idazkariak, zenbakia idatzita daramaten bederatzi bola sartzen ditu bonbo txiki batean eta ume baten esku inozentea banan-banan ateratzen hasten da, bakoitzari dagokion egur lotearen zenbakia adieraziz.

Dena dela, sistema hori ez da orain urte batzuk erabiltzen zena. Gaur egun bakoitzari zein lote tokatzen zaion suerteak erabakitzen du, baina lehenago "puja a la llama" deritxon subasta edo ekantearen bidez egiten zen. Lote bakoitzari gutxiengo balore bat emoten zitzaion eta enkantea hasten zen. Batek pujatzen zuenean pospoloa iziotzen zen, beste batek diru gehiago eskaintzen bazuen pospolo berria piztuz. Itzali arte inork ez bazuen diru gehiago eskaintzen pertsona horrek beregatzen zuen lotea. "Orduan, dirua zeukanak aukera gehiago izaten zuen. Gaur sei mila pezeta ordaindu eta izena ematen duten guztientzat heltzen da egurra" dio urteetan aurrera doan herritar batek.

Inausketa eta mozketa

Ondorengo lana epe zehatz batzuen barruan egurra etxeratzea izango da. Inausketa edota iharturiko zuhaitzen mozketa martxoaren amaierarako egin beharko da, hau da, inausketarako garairik onenean, eta irailaren 30a aurretik basotik atara, epe honekin neguko denbora txarrekin basoko bideetan kalterik ez egitea bilatuz.

Gidariak diren adarrak errespetatuz, inausketa era egokian egitea garrantzitsua da, hurrengo urteetan pagoaren adarrak bide zuzenetik hazi daitezen, ondorengo belaunaldiei egurraren aukera emanez. Inausketa behar den moduan ez egiteak edo dagokion egurra ez mozteak Udalaren isuna ekarriko luke.

Dokumentazio historikoa aztertuz baieztatu daitekeenez, Ubideko Udalaren ardura nagusieneta-rikoa, Gorbeialdeko besteena bezala, basoa zaintzea izan da, arboladiak indarberritzeko landa-rategiak edo kimu barrien landaketa bultzatzen kontu berezia jarriz eta gehiegizko mozketak gogor zigortuz.

Gidariak diren adarrak errespetatuz egin behar da inausketa.

Gaur egun ere basoen zaintzan arbasoen ohiturak ez dira guztiz alboratuak izan eta 1994an, Ubideko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, 16.000 zuhaitz - pago, haritz, gaztainondo eta intxaurrondoak- landatu zituen herriko basoetan.

REVISTA DE EDUCACIÓN AMBIENTAL

bizKaia Maitea

20 orr.
Tailerra

16.orr.
Udazkeneko koloreak

Lagarto, lagarto
pág. 19

Cómic
pág.18

Denborapasak
pág.22

21. orr.
Kontaiguzu

urria 98 octubre

Udazkeneko koloreak

Egilea: K Ibarra

Konturatu zara inoiz gure inguruko paisajea nola aldatzen den urtaroen arabera? Hasi berria dugun urtaro berezi honetan, kolorea da protagonista nagusia. Baina, zer dela eta kolore-eztanda hori? Nondik sortzen dira distira horiek, nondik tonu urrekara, okre, gorrimin edo izokin-koloreko horiek?

Erantzuna erraza da: aurreneko hotzak iristearekin batera, landareen izerdia astiroago mugitzen hasten da (ordu arte bizi-bizi ibili da zuhaitzetan gora eta behera). Isurbideak estutu egiten dira eta, horrenbestez, gero eta izerdi gutxiago iristen da landarera. Egia esan, hostoak geldiro hiltzen ari direla adierazten dute kolore horiek guztiek. Baina berriro jaioko dira, udaberria hasi bezain laster.

Hotza iristen denean, landare guztietan gertatzen dira aldaketak, baina zuhaitz hosto-erorkorrak dira kolore gehien erakusten dituztenak. Udazkenean, zuhaitzetik erortzen dira hosto horiek, eta Natura osoa negua igarotzeko prestatzen da.

Baina, bitartean, zer gertatzen da lurrera erori diren hostoekin? Desagertu egiten dira, baina inork ez ditu eramaten, lurrarekin bat egiten dute ostera, besterik gabe.

Naturan ezertxo ere ez da alferrik galtzen. Udazkenean lurra estaltzen duen hosto-geruza eder hori deskonposatu egiten da eta, hortik aurrera, lur horren beraren osagaietako bat da. Horrela, hostoak elikagai izango dira lehenago bere adarretan eutsi zien zuhaitzarentzat eta, horri esker, urtaro berria igaro ahal izango du zuhaitzak.

Lurzoruan bizi diren organismo batzuk arduratzen dira eraldaketa hori egiteaz (hosto eroriak deskonposatu eta berriro elikagai bihurtu, alegia). Organismo horietako batzuk, hala nola bakterioak edo protozooak, ezin ditugu begi soilez ikusi, hain dira txikiak.

Ikusi dugunez, urtaro berriarekin batera, kolorea aldatzen da eta zuhaitzetako hostoak erortzen dira, paisajea itxuraldatuz. Baina besterik ere gertatzen da: animalia askok janaria biltzen dute udazkenerako. Urtxintxa dugu adibiderik argiena eta ezagunena.

Goazen, bada, mendira, Naturak eskaintzen digun urtaro berezi hau mirestera eta gozatzera. Ongi etorri, udazkena!

KOMIKIA CÓMIC

XX. mendeko pirata edo kortsario berriak herri indigenen jakintzaz jabetzen dira oso bide gaitzesgarriak erabiliz. Sendabide naturalak eta antzinako formulak, askotan, Mendebaldeko herrialdeek eginiko aurkikuntzak balira bezala aurkezten dizkigute.

Autora: Eva Benito

Lagarto, lagarto

El *Lagarto verde* o *Musker berdea* es un reptil de mediano tamaño que alcanza un máximo de 13 cm sin incluir la cola, que suele medir el doble que el cuerpo.

Su piel es de color verde con manchas negras y está completamente cubierta de escamas. Esta protección le ayuda a evitar la pérdida de agua, que le es indispensable ya que vive en ambientes secos. Cuando crece, esta piel escamosa se le cae a trozos y es sustituida por una nueva. Este cambio cíclico de escamas recibe el nombre de mudas.

Tiene la cabeza plana y del tronco, además de la cola, le salen cuatro patitas cortas con cinco dedos largos que acaban en garras. Las patas del lagarto sólo le sirven para agarrarse, no pueden sostener su propio peso. Por este motivo se desplaza como las serpientes, arrastrándose por el suelo gracias a los movimientos ondulantes de su cuerpo.

La hembra del Lagarto verde pone los huevos y después los abandona. Para protegerlos de sus enemigos los oculta bajo una piedra o en agujeros. El calor del Sol los incuba. Las crías, en cuanto salen del huevo, son capaces de cazar para alimentarse.

El lagarto es un animal territorial y vive siempre en la misma zona. En nuestro territorio está ampliamente extendido, entre herbazales y zarzales, donde le gusta refugiarse para vivir.

Su color verde se confunde con el paisaje que le rodea, pero si es descubierto por sus depredadores huye para esconderse. En ocasiones, al huir la cola se le rompe e incluso separada del cuerpo sigue moviéndose unos instantes. De esta forma consigue distraer al depredador y puede escaparse. Después, la cola le vuelve a crecer.

Su alimentación es variada: insectos, gusanos, arañas, frutos y pequeños vertebrados como ranas, lagartijas, ratones y musarañas. Es, pues, un animal carnívoro pero completamente inofensivo, muy útil para la agricultura.

KUTXA BAT ORBELAZ FORRATU

HAU BEHAR DUGU:

* Kartoizko kutxa handi bat (oinetakoak edo puruak gordetzekoa).
* Forma, tamaina eta kolore desberdinetako hosto ihartuak (lurretik hartu ahal dituzu etxetik hurbil daukazun parkeren batean).
* Tenperak eta hatz-pinturak.
* Kola zuria eta pintzela.

ZELAN EGIN?

ESTALKIA.



1.- Aurrena, ondo garbitu behar ditugu lurretik hartutako hosto ihartuak. Behar izanez gero, urez garbitu, eta ondo lehortu gero.
2.- Lehortutakoan, “buztantxoa” moztuko diegu eta, lagun heldu batek lagundurik, kontu handiz lisatuko ditugu. Egunkari-paper bat ipini hostoaren gainean, erre ez dadin. Lau-lau geratu behar dute, aise itsasteko.
3.- Kola zuria urez diluitu eta, pintzela erabiliz, estalkian itsatsi hostoak. Apur bat estali bata bestearekin, kutxaren kartoia ikus ez dadin.

4.- Soberan geratzen zaizkizun hostoen ertzak ebaki edo estalkiaren barrualderantz tolestu.

KUTXA.

5.- Kutxaren eta estalkiaren barrualdea hatz-pinturaz margotu, hatz erakuslea kolore desberdinetako margoetan bustiz.
6.- Kutxaren kanpoaldea pinturaz eta pintzelarekin apaindu.
7.- Kola zuri diluitua erabiliz, kutxa eta estalkia bernizatu.

Estalkia orbelaz apaindurik daukan kutxa polit eta ikusgarri bat egin dugu. Barruan opariren bat sartzeko erabil dezakegu.

KONTAIGUZU
CUÉNTANOS

Pedro

Yolanda

Imanol

Aquí tenemos tres originales dibujos realizados por alumnos del Colegio Zubileta, en los que se refleja la particular visión que cada uno de ellos tiene de la recuperación del Humedal de Bolue.

